

“UDAZKEN KOLOREAK ZARAUTZEN 2021”

INSTAGRAMeko ARGAZKI-LEHIAKETA

Zarauzko Udaleko Turismo, Jai eta Ekitaldien Departamentuak, Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkartearekin lankidetzan (aurrerantzean ZUREKIN), "Udazken koloreak Zarautzen" argazki-lehiaketa antolatu du Instagram sare sozialean dituen jarraitzaileen komunitatearen artean. Lehiaketa horretan oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute.

OINARRIAK

PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

- 18 urtetik gorako eta sare horren baldintzak errespetatzen dituzten Instagram aplikazio mugikorraren erabiltzaile guztiek parte har dezakete (<http://instagram.com/legal/terms/>).
- Lehiakidearen profilak publikoa izan behar du.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.

LEHIAKETAREN INDARRALDIA

2021eko urriaren 1etik (00:00 bertako ordua) eta 2021eko azaroaren 7ra (23:59 bertako ordua) arte partekatutako argazki guztietarako izango da baliozkoa lehiaketa. Epe horietatik kanpo partekatutako argazkirik ez da onartuko.

FUNTZIONAMENDUA

- Gaia "Udazken koloreak Zarautzen" izango da; erabiltzaileek Zarauzko kale, plaza eta txoko gustukoenei buruzko irudiak partekatu beharko dituzte.
- #udazkenkoloreakzarautzen traola gehitu beharko dute argazkien oinean edo lehen iruzkinean.
- Era berean, @zarautzturismo eta @zurekinelkartea profilen jarraitzaile izan beharko dute.
- Erabiltzaile bakoitzak gehienez 3 argazkirekin hartu ahal du parte, lehiaketaren epearen barruan partekatuta, eta lehiaketaren gaiari eutsi beharko diote.
- Instagramen argitaratutako irudiak bakarrik onartuko dira, eta ondo etiketatuta egon beharko dute. Horrez gain, sustatzailearen iritziz edukia desegokia, ez-onargarria edo iraingarria bada, ez du lehiaketan parte hartuko.
- "Atsegin dut" eta iruzkin asko dituzten argazkiek ez dute irabazteko aukera handiagorik izango.
- Zarauzko Udaleko Turismo Departamentuak eta ZUREKINek aukeratuko dituzte argazki irabazleak.
- Hautaketa hori egiteko, besteak beste, honakoak **baloratuko** dira: kalitatea, sormena, originaltasuna eta proposatutako gaiarekin duen lotura-maila.
- Erabakia sare sozialetan partekatuko dute 2021eko azaroaren 12an.
- Lehiaketa hutsik gera liteke, egoki iritziz gero.

IRABAZLEEN KOMUNIKAZIOA

Sustatzailea Instagram bidez jarriko da harremanetan irabazlearekin; horretarako, iruzkin bat utziko dute irabazlearen kontuan, edo egoki iritzitako bidea jarraituko du. 48 orduren ostean ezin izan badira harremanetan jarri irabazleekin, sustatzailea erantzukizunetatik salbuetsita egongo da, eta beste irabazle bat aukeratu ahal izango du.

SARIA

1. saria: 150 euroko saria Zarauzko Udaleko Turismo Departamentuaren eskutik.

ZUREKIN sari berezia: Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkarteko ostatueta batean gau bat bi pertsonentzat.

IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Lehiaketan parte hartzean, erabiltzaileek onartzen dute sare honetan argitaratuko diren edukiak eta iruzkinak Instagrameko eta beste sare sozial batzuetako erabiltzaileekin partekatu daitezkeela. Datu pertsonalak ez dira inongo fitxategitan gordeko, eta lehiaketaren parte-hartzea kudeatzeko bakarrik erabiliko dira.

IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaile bakoitzak lehiaketan aurkeztutako material ororen irudi eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak dituela adierazten du. Zarauzko Udaleko Turismo Departamentuak parte-hartzailearen izena, irudia eta argazkiak erabiltzeko eskubidea izango du kanpaina honi lotutako sustapen-material gisa, egoki baderitzo.

ERANTZUKIZUNAK

Sustatzaileak edozein parte-hartze edo partaide kanporatzeko eskubidea du, datuak edo lehiaketa bera manipulatu delako susmoak baldin baditu.

Era berean, ez da arduratzen posta elektronikoko arazoengatik eta/edo Instagramen edo Interneten funtzionamendu txarragatik datuak galtzeaz.

Ez da erantzukizunik izango, hartutako segurtasun-neurriak gorabehera, erabiltzaileek zerbitzuak eta edukiak behar ez bezala erabiltzearen ondorio izan daitezkeen era guztietako kalte-galerengatik, eta, bereziki, nahiz eta ez modu eksklusiboan, erabiltzaile batek egindako edozein komunikaziotan hirugarren baten nortasuna ordeztearen ondorio izan daitezkeen era guztietako kalte-galerengatik.

ARAZOEN EBAZPENA

Epaia apelaezina da.

Oinarri hauetan jaso ez den edozein gai epaimahaiak ebatziko du.

CONCURSO de FOTOGRAFÍA en INSTAGRAM “COLORES DE OTOÑO EN ZARAUZ 2021”

El Departamento de Turismo, Fiestas y Eventos del Ayuntamiento de Zarautz, en colaboración con Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkartea (en adelante ZUREKIN), organiza el concurso de fotografías “Colores de otoño en Zarautz” entre su comunidad de seguidores de la red social móvil Instagram, en la que podrán participar todas las personas físicas que cumplan las condiciones establecidas en estas bases.

BASES

CONDICIONES GENERALES DE PARTICIPACIÓN

- Pueden participar todas aquellas personas usuarias de la aplicación móvil Instagram mayores de 18 años y que respetan las condiciones de esta red (<http://instagram.com/legal/terms/>).
- El perfil de la persona concursante tiene que ser público.
- La participación en este concurso supone la aceptación íntegra de las presentes bases.

PERÍODO DE VIGENCIA DEL CONCURSO

El concurso es válido para todas las fotografías compartidas entre el 1 de octubre de 2021 a las 00:00 horas (hora local) y el 7 de noviembre de 2021 a las 23:59 horas (hora local). No se aceptarán fotografías compartidas fuera de estos plazos.

FUNCIONAMIENTO

- La temática del concurso es “Colores de otoño en Zarautz”. Las personas usuarias deberán compartir las imágenes de sus calles, plazas y rincones favoritos de Zarautz.
- Deberán añadir en el pie de foto o en el primer comentario de las fotografías el hashtag #coloresdeotoñoenzarautz.
- Además, deberán seguir los perfiles @zarautzturismo y @zurekinelkartea.
- Cada participante puede participar con un máximo de 3 fotografías, publicadas dentro de las fechas del concurso y siempre acorde con la temática del mismo.
- Sólo se aceptarán imágenes publicadas en Instagram que hayan sido etiquetadas correctamente. Además, cualquier contenido que el promotor considere no adecuado, inapropiado u ofensivo no tomará parte en el concurso.
- El hecho de que la fotografía tenga muchos “Me gusta” o comentarios no implicará más posibilidades de ganar.
- El Dpto. de Turismo del Ayuntamiento de Zarautz y ZUREKIN seleccionarán las fotografías ganadoras.
- Para su elección se **valorarán**, entre otras: la calidad, creatividad, originalidad y el grado de relación con el tema propuesto.
- La decisión se compartirá por las redes sociales el día 12 de noviembre de 2021.
- El concurso podría quedar desierto si así se considera oportuno.

COMUNICACIÓN DE LAS PERSONAS GANADORAS

El promotor del concurso se pondrá en contacto con la persona ganadora a través de Instagram, dejando un comentario en el contenido de esta persona y/o por las vías a su alcance que considere oportunas.

En caso de imposibilidad manifiesta para contactar con la persona ganadora en el plazo de 48 horas, el promotor quedará eximido de cualquier responsabilidad y podrá elegir a otra persona ganadora.

PREMIO

1º Premio: Premio de 150€ de la mano de Zarauzko Udaleko Turismo Departamentua.

Premio especial ZUREKIN: Una noche para dos personas en un alojamiento de la Asociación de Hosteleros de Zarautz Zurekin.

PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Las personas participantes aceptan, mediante su participación en este concurso, que los contenidos y comentarios que vayan a ser publicados en esta red puedan ser compartidos con el resto de usuarios/as de Instagram y otras redes sociales. Los datos personales facilitados no serán incorporados a ningún fichero, y serán utilizados únicamente con la finalidad de gestionar la participación en el concurso.

DERECHOS DE IMAGEN

Cada participante manifiesta y se responsabiliza de que ostenta los derechos de imagen y propiedad intelectual sobre todo el material presentado al concurso. La participación en el concurso supone dar el consentimiento al Dpto. de Turismo del Ayuntamiento de Zarautz para utilizar su nombre e imagen, así como las fotografías, como parte del material promocional relacionado con la presente campaña si así lo estima oportuno.

RESPONSABILIDADES

El promotor se reserva el derecho de anular cualquier participación o a cualquier participante, si se tienen sospechas de una manipulación incorrecta de los datos o del concurso.

Tampoco se responsabiliza de las posibles pérdidas de datos por problemas de correo electrónico y/o por el mal funcionamiento de Instagram o internet.

Se excluye cualquier responsabilidad por los daños y perjuicios de toda naturaleza que, a pesar de las medidas de seguridad adoptadas, pudieran deberse a la utilización indebida de los servicios y de los contenidos por parte de las personas usuarias, y en particular, aunque no de forma exclusiva, por los daños y perjuicios de toda naturaleza que puedan deberse a la suplantación de la personalidad de un tercero efectuada por una persona usuaria en cualquier clase de comunicación realizada.

RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS

El fallo es inapelable.

Cualquier cuestión no contemplada en estas bases, será resuelta por el jurado.